

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRAIA-MAEZTUKO UDALA

2025/2026 ikasturtean euskara ikasteko beken deialdia

Udal honek, 2026ko uztailaren 23an egindako bilkuran, 2025/2026 ikasturtean euskara ikasteko beken deialdiaren oinarriak onartu zituen.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, honako hau argitaratzen da:

1. artikulua. Deialdiaren xedea eta helburua

2025eko urritik 2026ko irailera ikasturtean euskara ikasten laguntzeko bekak ematea, udako ikastaroak eta barnetegiak barne. (Kanpoan geratzen dira lekualdaketa-, mantenu- eta ostatu-gastuak barneratuen kasuan).

Eskaera kopuruaren eta eman beharreko zenbatekoak direla eta, dirulaguntzetan eman beharreko guztizko zenbatekoa deialdiaren aurrekontuko zuzkidura baino gehiago balitz eta, ondorioz, laguntzak murriztu beharko balira, murrizketa hori onuradun guztiei egingo litzaieke proportzioan.

2. artikulua. Onuradunak

1. Laguntzen onuradun izango dira Arraia-Maeztuko udalerrian dagokion ikastaroa hasi aurretik eta ikastaroa egin bitartean etenik gabe errolatutako pertsona fisikoak, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Izena ematean 16 urtetik gorakoa izatea.

b) Helduen Alfabetatze eta Euskalduntze Erakundeak (HABE) aitortutako ikastegi eta ikastaroren batean matrikulatuta egotea, edo, hala badagokio, eskualdeko erakunde publikoek antolatuta.

c) Ehuneko 80ra edo gehiagora bertaratu dela egiaztatzea, edo matrikulatuta dagoen kurtso edo kurtsoak gainditu izana.

d) Arraia-Maeztuko Udalean ordainketak egunean izatea.

2. Ez dira onuradun izango Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan aurreikusitako egoeraren batean dauden pertsonak.

3. artikulua. Aurrekontu-zuzkidura

2026. urterako aurrekontu-zuzkidura 1.000,00 eurokoa da, 335.480000 aurrekontu-aplikazioari dagokiona.

4. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa eta horiek emateko irizpideak

Zenbatekoa emango da, betiere 1.000,00 euroko aurrekontu-kredituaren muga kontuan hartuta. Eskabide kopurua eta jaso beharreko zenbatekoak direla-eta, aurrekontu-partidara egokitzeke jaso beharreko gehieneko zenbatekoak murriztu beharko balira, murrizketa eskaera guztien proportzioan ezarriko litzateke.

Eman beharreko laguntzaren zenbatekoa hiru modulutan banatzen da, ikastaroaren ordu-intentsitatearen arabera:

1. 400 ordura arteko modulua: ehuneko 60.
2. 401-600 orduko modulua: ehuneko 70.
3. 601 ordutik gorako modulua: ehuneko 80.

Nolanahi ere, eskatzaile eta urte bakoitzeko beka ezin izango da 500,00 eurotik gorakoa izan.

5. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskatzaileek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) Eskabide-orria.
- b) NANaren fotokopia.
- c) Ikastetxearen ziurtagiria, ikastaroaren ezaugarriak adierazten dituen (hasiera- eta amaiera-data, gutxienez eskolen ehuneko 80ren bertaratze-datuak, edo, hala badagokio, matrikulatutako ikastaroa gaingitu izanaren egiaztagiria). Barneratutako ikastaroen kasuan, ikastetxearen ziurtagiria, irakaskuntza-, mantenu- eta ostatu-gastuak banakatuta dituen.
- d) Matrikula ordaindu izanaren banku-erakundearen egiaztagiria.
- e) Beste erakunde batzuetatik jasotako laguntzaren zenbatekoa egiaztatzen duen agiria.
- f) Edo, hala badagokio, beste laguntza batzuk eskatu izanaren egiaztagiria.
- g) Arraia-Maetzuko Udalean ordainketak egunean izatea.

6. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea eta tokia

Eskabideak aurkezteko epea 2026ko azaroaren 30ean amaituko da.

Dokumentazioa Arraia-Maetzuko Udaleko erregistro orokorrean aurkeztuko da, edo lege onartutako edozein bide erabiliz.

Eskabideak baldintza guztiak betetzen ez baditu, interesdunari 10 egun balioduneko epean zuzentzeko eskatuko zaio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluaaren arabera.

7. artikulua. Laguntzen bateragarritasuna

Udalaren laguntzak bateragarriak dira eskatzaileak eskura ditzakeen beste laguntza batzuekin. Hala ere, onuradunak ezin izango du gaingitu ikastaroaren matrikulazio-kostua.

Onuradunak helburu bererako dirulaguntza edo laguntzarik jaso badu, horren berri eman beharko dio udalari. Beste laguntza batzuk eta horien zenbatekoa ezagutu ondoren, udalaren laguntza matrikulazio-kostuaren defizitaren arabera ezarriko da, jasotako gainerako laguntzekin batera.

HABEren dirulaguntzen onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten ikasleek HABEren dirulaguntzen urteroko deialdira aurkeztu beharko dute. Udalaren dirulaguntza HABEk ematen dituen osagarria izango da.

8. artikulua. Eskabideak aztertzea eta ebaztea

Eskabideak euskara-teknikariak aztertu eta baloratuko ditu. Alkatetzak, dekretu bidez, txosten teknikoa ezagutu ondoren, bidezkoa dena ebatziko du aurkeztutako eskabideak ikusita.

9. artikulua. Datu pertsonalen babesa

Dirulaguntza eskatzen duten pertsona edo erakunde guztiek konpromisoa hartzen dute Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetzeko eta EB 2016/679 Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Era berean, deialdi honetan parte hartzen duten pertsonak baimena ematen diote Lagrango Udalarari beste erakunde publiko batzuetan egiazta ditzan aurkeztutako dokumentuetan emandako datuak.

Azken xedapena

Araudi osagarria izango da azken xedapenetako lehenengoan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. xedapen gehigarrian, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren dirulaguntzak emateko erregelamendua garatzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotako erregulazioa.

Maeztu, 2026ko abuztuaren 6a

Alkatea

ANA ASUNCIÓN FERNANDEZ DE MONJE ALZOLA